

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

367/2026 Foru Agindua, uztailaren 20koa. Udaleko karrerako funtzionario Nuria García Sáez de Vicuñaaren halabeharrezko izendapena, Vitoria-Gasteizko udalbatzaren idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko

Maiatzaren 19ko 238/2026 Foru Aginduaren bidez, Udaleko karrerako funtzionario Nuria García Sáez de Vicuñaaren halabeharrezko izendapena egin zen, Vitoria-Gasteizko udalbatzaren idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, harik eta lanpostuaren titularra itzuli arte.

Udalak uztailaren 13an jakinarazi zuen lanera itzuliko zela, eta izendapen berria eskatu zuen irailaren 14tik aurrerako ondorioekin.

Lehenengo izendapena egin baino lehen, estaturako gaikuntza duten funtzionarioei lanpostua eskaini izana argitaratu zen 2026ko apirilaren 22ko ALHAOn (46. zk.), eta ez zen eskaerarik jaso hartarako eskainitako epean.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ahalbidetzen du halabeharrezko izendapenak egitea, estaturako gaikuntza duten funtzionarioei gordetako lanpostuetan beharrezkoak diren ordezkapenak egiteko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluan jasotzen diren kasuetan.

128/2018 Errege Dekretuaren 52.1 artikulua arabera, ezinezkoa bada lanpostua estaturako gaikuntza duen funtzionario batekin betetzea, toki korporazioek autonomia erkidegoei eskatu ahal izango diete beren funtzionarioetako bat izendatzeko, halabeharrezko izaeraz; funtzionario horrek prestakuntza tekniko egokia izan behar du, eta, ahal den guztietan, A1 azpitaldekoa edo unibertsitate tituluduna izan behar da. 5.000 biztanletik gorako toki korporazioetan A1 azpitaldeko karrerako funtzionario bat izan behar da betiere.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan xedatutakoa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (25. artikulua) idatzita utzi zuen moduan, non toki korporazioetan langileak halabeharrez izendatzeko eskumen eremua zehazten baita.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan (ALHAO, 36 zk., 2023ko martxoaren 27koa) jasotzen diren eskudantziak betez, eta nire eskumenekoak diren ahalmenez baliatuz eta horrenbestez

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Nuria García Sáez de Vicuña andrea Vitoria-Gasteizko Udaleko udalbatzaren idazkari lanpostutik kentzea, 2026ko uztailaren 12tik aurrerako ondorioekin, halabeharrezko izendapen bidez betetzen baitzuen maiatzaren 19ko 238/2026 Foru Aginduaren arabera, titularra lanpostura itzuli baita.

Bigarrena. Vitoria-Gasteizko Udaleko karrerako funtzionario eta A1 azpitaldeko Nuria García Sáez de Vicuñaaren halabeharrezko izendapena Vitoria-Gasteizko Udaleko udalbatzaren idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko 2026ko irailaren 14tik aurrerako ondorioekin, titularra itzultzen den arte.

Hirugarrena. Vitoria-Gasteizko Udalak sail honi jakinaraziko dio lanpostuaren funtzionario titularra noiz itzultzen den lanpostura.

Laugarrena. Foru agindu hau toki erakunde eskatzaileari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari jakinaraztea, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hori behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, aurrez errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 20a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA